

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak abian jarriko du zerealen nematodoaren aurkako ekintza-plana

*Izurria garagar-laborantzako azaleraren %3an antzeman da, eta uztan %0,3ko galerak izan dira*

Martes, 09 de agosto de 2011

Nafarroako Gobernuak ekintza-plana abian jarriko du zerealen zezidioetako nematodoari (*Anguina tritici*) aurre egite aldera; patologia horrek garagar-laborantzak harrapatzen ditu.

Pasa den abuztuaren 5 ean, Erriberrin, [izurri horri buruzko jardunaldi teknikoa](#) egin zen, Nekazaritza Kudeaketako Institutu Teknikoak (ITG), Nafarroako Gobernuaren sozietate publikoak, antolatuta, eta han erabaki zuten plana abian jartzea. Bertan, Katalunia, Aragoi eta Foru Erkidegoko teknikariak izan ziren.

Jardunaldian aztertu duten nematodo-espezia har mikroskopikoa da, zerealaren laboretan bizi dena, eta, zikloaren amaieran, garagarraren alea ordezkatzeko duen zezidio txiki bat osatzen du. Barruan hamar milaka nematodo egoten dira, eta hurrengo kanpainara bitarte irauten dute.

Izurriaren sintomarik ikusgarriena dira garagarraren buru hutsak eta alerik gabeak, nahiz eta tente egon zikloaren amaiera arte. Sintoma hori Katalunian ikus ahal izan da 90. hamarkadaz geroztik eta Aragoian 2000. urtetik aurrera. Nafarroari dagokionez, tarteka topatu da azken hiruzpalau urtetan, baina aurrean argi eta garbi agertu da garagarraren laborantzako azaleraren %2 edo 3an. Gainera, galera handiak sortu ditu zona



Zerealen nematodoaren inguruko jardunaldi teknikoko hizlariak Erriberrin.



Anguina triticitik kaltetutako garagar-aleak.

batzuetan, Nafarroako uzta osoaren %0,3 besterik hartu ez badu ere.

Nekazaritza Kudeaketako Institutu Teknikoko (ITG) teknikariek, Nafarroako Gobernuko Landareen Biologiako Laborategiarekin batera, pasa den ekainean identifikatu zuten zezidioen nematodoa, "garagarraren buru hutsen" arazoaren agente eragile gisa. Identifikazio hori Madrilgo nematodoen laborategiak berretsi zuen beranduago.

Erriberrin egindako jardunaldiaren lehen saioan, nematodoaren arazoa kaltetutako hiru autonomia erkidegoetan zenbaterainokoa zen aztertu zuten. Horrela, erabaki zuten administrazioak eta sektore ekoizleak modu koordinatuan lan egin behar dutela, arazoizko denboraren barruan errotik kentze aldera. Horretarako, lehen neurri gisa, kalitatezko haziak erabiltzea erabaki zuten, eta, bigarren, laboreak lekuz aldatzea eta garagarra berriro ez landatzea bi urtetan kaltetutako partzeletan.

Azkenik, ekintza-plana abian jartzea erabaki zuten erantzun gabe geratzen diren galderak ebaztearren; hala nola, nematodoak duen harremana praktika kulturekin eta ingurumen-baldintzekin edota ziur jakitea garia edo oloa ere kalte ditzakeen.

Jardunaldi teknikoan ondorengoak izan ziren: nematodoetan aditua den Alfonso Navas, Ikerketa Zientifikoaren Kontseilu Nagusikoa (CSIC); landareen osasunean adituak direnak, Jaume Almacellas (Katalunia), Agustín Perdiguer (Aragoi) eta Juan Antonio Lezaun (Nafarroa); Jesús Goñi eta Alberto Lafarga, Nekazaritzako ITG-ko zerealen arloko espezialistak; Enrique Labiano, haziak ziurtatzeko Nafarroako arduraduna eta José Ignacio Ortega, Landare Aldagaien Espainiako Bulegokoa (MARM-en mendekoa). Jardunaldian, hazien eta landareen osasunaren arloko teknikari askok parte hartu zuten; baita ere, Nafarroako zereal-kooperatiba nagusietako ordezkariak eta Nekazaritzako ITGko teknikariek. Guztira, laurogei pertsona bildu ziren.